



| KUTXA Enplegatuen Elkartea | Xendazaletasun atala              |
|----------------------------|-----------------------------------|
| 125. zka 5. etapa GR-283   | Lizarrusti-Zaldibia/2018-06-09/10 |

Xendazale adiskideok:

Jarraitzen dugu “Aralarko parke Naturalean”, bere goratasun, zabalera, erabilera eta balio naturalei dagokienez Euskal Herriko mendi-eremurik garrantzitsuenetako batean. Gipuzkoako hegoaldean dago, mendi-kate bereko nafar zatiarekin mugakide, lehen mailako paisaia-erreferentzia izanik.

Lizarrusti Gaietetik bertatik abiatuko dugu ibilaldia, bidezidor eroso batean aurrera, pixkanaka gora eginez Lareoko urtegira iritsi arte. Han eskuinera hartuko dugu Baiarrateko igarobidearen bila, Aralarko San Migelera doan bidezka utzi ondoren (15,8 km).

Igarobidea atzera utzita, gune belartsura irtengo gara, ohiko “alfonbra berdera”, bai atsegingarria bertan ibiltzea! Enirio, Uidui eta Jentilarriko trikuharria izango dira gure ibiliaren lekuko.

Galtzea ezinezkoa den bidezidorra hartuta, “Gaintzolako Iturri” ondotik igaroko gara, eta pixkanaka beheraka, inguru honetako baserriak elkartzen dituen hormigoizko pistara irten arte. Gero, Olaeta baserriaren ondotik igaroko gara, eta beheraka jarraituko dugu eroso iritsi arte Zaldibiako herriraino, pertsonaia garrantzitsuen sorlekuraino.

Besteak beste, Pedro Argaya, ospetsu bihurtu zen fraidea “Maragato” bidelapur sonatua harrapatu zuelako Oropesan. Juan Ignacio Iztueta, folklorista, euskal idazle eta historialaria. Jose Antonio Olano, dantzaria eta dantza-maisua, Juan Ignacio Iztueta lanaren jarraitzailea. Jose Adriano Lizarralde, frantziskotarra, idazle eta historialaria. Benito Perez, Real Sociedad eta Español futbol-taldeetako jokalaria. Angel Sukia, Madrilgo artzapezpikua eta kardinala. Jose Nazabal, txirrindularia, etapa bat Tourrean, Espainiako Itzulian podioa eta abar irabazia.

### Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

#### Ibilbidea: Lizarrusti-Zaldibia

|                                                                                                    |                                                                                                   |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Beharrezko denbora                                                                                 | 4,45 ordu                                                                                         |
| Goranzko desnibel metatua                                                                          | 510 metro                                                                                         |
| Beheranzko desnibel metatua                                                                        | 725 metro                                                                                         |
| Zeharretara egin beharreko distantzia                                                              | 19.550 metro                                                                                      |
|  Ingurua        | 1  Orientazioa |
| 1  Joan-etorria | 1  Esfortzua |
|                                                                                                    | 3                                                                                                 |

|                         |                                                                               |
|-------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Irteera-lekua</b>    | <b>Bilbo Plaza (17/24 bus-geralek.) eta Pio XII.aren Plaza (24/27 bus-g.)</b> |
| <b>Aurkezteko ordua</b> | <b>07:40 (Bilbo Plaza) eta 07:30 (Pio XII.aren Plaza)</b>                     |
| <b>Irteera-ordua</b>    | <b>07:45 (Pio XII.aren Plaza)</b>                                             |
| <b>Bazkaria</b>         | <b>XXXXXXX jatetxea.</b>                                                      |
| <b>Prezioa</b>          | <b>30 euro</b>                                                                |

#### Izena emateko azken eguna: 2018-06-07ko 12:00etan

**Oharra: b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.**

**b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.**

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

*DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña*

